

- Entzutekuak: Urko Irastorza, Udalbiltzako auzipetua
- Kirola: Soraluze Saria uztailearen 18an izango da

soraluzeko  
hamabostekaria **225.** alea  
2010eko uztailearen 9an

# **pi-pilean**



**KOSTIA DYACHENKO:**  
**“Soraluzen ikasi eta  
bizi nahiko nuke”**

# JUAN MARI

## ARRAINDEGIA



# 25.

## URTEURRENA

**ESKERRIK ASKO PLĀENTXIĀTARREI  
GUGAN IZANDAKO KONFIANTZAGATIK!**



GORKA PRIETO



EGUZKIÑE ALDAZABAL

## OPOR-GREBAK?

**G**reba hotsak oraindik gertutik sentitzen ditugun honetan, asaldatzen nauen asuntoa darabilkit buruan 'Kax, kax, kax' loa kendu nahian. Ba al da (gara) gizartea kontziente edo jakitun zer dagoen jokoan egungo borroka sozialean?

Aldebatetik gure herrian (herriarekin nazioa esan nahi dut, batzuek herria terminoa guztiz balioz hustu baitute), borroka soziala edota sindikala guztiz politizatu da; borroka beraren indarra eta emaitzak ahulduz. Langilegoaren indarra ahultzea xede daukanak eskuak igurtzi besterik ez du egiten azkenaldian.

Garbi dago, ezin dela aurpegi biko txanponarekin jokatu, estatu espainiarreko sindikatu nagusiak egiten duen bezala, Eusko Jaurlaritzaren konplizitatearekin. Baina ezta ere, nire uste apalean, ezin dena da abertzaletasunaren ize-nean, gero eta gehiago makaldu nahi dizkuguten langileon eskubideak bigarren planuan uztea ere.

Datorren irailean sindikatu espainiarrek greba deitua dute, hemen ekainean zentzurik izan omen ez duen greba bera. Euskal sindikatuak ez lirateke beste hoi mailan jarri behar, eta abertzaletasuna arlo politikoan defendatu behar duenari utzi (hoie ere libreki utziko baliote gaitzerdi...) eta sendotasun soziala erakutsi beharko genuke, hemen ere greba arrazoiak mantenduko balira, grebara joaz. Langile bezala nire perzeptzioa besterik ez da, baina azkenaldian izan ditugun greba zenbaitzuren indar falta, gainera, gure kontra erabili besterik ez dute egin; entzuna bainaiz enpresari bateren baten ahotik zera esanaz: "Egun bateko grebak, kostuak murrizteko balio digu...". A zer komeria.

“

**“Izan ditugun greben indar falta, gainera, gure kontra erabili besterik ez dute egin”**

Gorka Prieto

**“Bost katu zebiltzan pankarta handiaren atzealdean. Gainontzeko katuek lasai kafea hartzen zuten”**

Eguzkiñe Aldazabal

”

**A**pa Gorka, Oraingo honetan jarri didazun gaia nahiko zaila irudituz zait esan duzunaren gainean zerbait berria esan behar badut. Kontatuko dizut orduan greba egun hartan ikusi nuena, eta egunotan entzun eta irakurri dudana, gogoa modura.

“*kaxkaxkax*” esnatu ninduten zuk aipatutako hotsek, iratzargailuaren beharrik ez nuen izan beraz astearte hartan. Harategi txiki baten aurrean ziharduten protestan, harakinari lokala ixteko esanez; “*no puedo cerrar, para mí perder un día de trabajo supone demasiado*”. (...) Lagun batekin kafexka bat hartzera jaitsi nintzen kalera, laneko gai batzuen inguruan eztabaidan aritu behar genuen eta. Kafetegi batera joan ginen (irekia zegoen eta barruan mahai guztiak okupatuta). Hartu genituen gure kafesne-kruasanak. 15 minutuan aurreko plazan genituen esnatu ninduten zarata eta iskanbila. Zerbitzariak berehala jaitsi zituen kafetegiko pertsiara metalikoak, eta barruan gelditu ginen ezin irteten (...). *Bost katu zebiltzan pankarta handiaren atzealdean. Gainontzeko katuek lasai kafea hartzen zuten, edota arduratuta zebiltzan eguneko ogia non erosi ez zekitela. Hondartza eguna ere izan zen: “huelga no, hubo fiesta en San Sebastián, donde las playas se llenaron de gente con ganas de disfrutar de su día libre”*. (...)

“*Greba soziala izan beharko lukeen honetan, greba politikoa dugu gurean, herri honetako patua da*” (...).

“*Borroka soziala zer den ez duzue jakingo hemen poltsikotan rebajetan gastatzeko adina diru duzuen bitartean*” (...).

(mila puntu *suspensibo*).Eskumuniak *sozio!*

Goguan hartzeko

**“Txalupan nagusi asko daudenean, arrantza gutxi”**

Euskal atsotitza



## GUTUNAK

**Zorionak Allegro!**

**H**errixan sendo sustartuta dagan Allegro al-kartiaren 50. urteurrena ospatzen dihardue aurten, jaixo zanetik egin daben moduan kultura eta jaixa ardatz hartuta. Beti geure nortasunari sendo eutsitta egin dabe lan, euskeraz. Hori da guk nabarmendu nahiko geunkena, gaur egun be lan haundixa egitten dabizelako euskeriari eutsi eta erabilpena sustatzeko.

Udaletik lankidetzarako egindako proposamenari heldu eta euskera hutsian dabilen tresna informatikua ipini dabe kontuak eruateko, idatzizak euskeraz jarri dittue, ahozko funtzionamenduan euskerak presentzia haundixa daka eta urteurreneko ospakizunetan euskeria nagusi izan da. Bide horretatik segi deixela opa dotsagu Allegruari beste batzuek be bardin egin deixen. Eskerrik asko eta bejondeizuela!

**Soraluzeko Udal Gobernu Batzordea**

**Estazioko parkea hanka motz**

**O**rain antzeman daiteke Estazioko etxebizitzaren proiektuak izango duen eragina bertako parkean. Gaia ez da berria, 2009. urtean Soraluzeko EAJ/PNV udal taldeak gure alegazioak aurkeztu genizkion udalak aurkezturiko proiektuari. Alegazioen artean, urbanizazio proiektuan biribilgune bat proiektatzen zela ikusita eta honek egungo parkearen erdia "jaten" zuela ikusita udalari eskatzen genion beste irtenbide bat emateko. Udal gobernuak atzera bota zuen gure taldeak aurkezturiko alegazioa. Ondorioz, biribilguneak gaur egungo parkearen erdia

hartuko du. Jakinekoa da Soraluzen ez daudela parke publiko asko eta Estazioko parkea herritar ugari erabiltzen duela. Guzti hau horrela izanik ez genuen inolaz ere ikusten egungo parkeari erdia kentzea urbanizazio lanak medio. Badirudi udal gobernuak ados zegoela proiektuarekin eta aurrera jo zuen. Non gelditzen dira orain ezker abertzalearen aldarrikapenak hormigoiaren politikaren aurka? Ez alzen posible beste irtenbide bat ematea biribilguneari, parkea izorratu gabe? Argi esan dezakegu mozorroa erori zaizuela.

**Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea**

### Pil-pilean aldizkariko oharra

Eskuetan duzun ale hau abuztuko oporren aurretik jasoko duzun azken aurrekoa izango da. Oporrak hartu aurretik Santiago – Santa Ana jaietako argazkiekin, argazki bilduma osatuko dugu. 226. ale berezi horretan albisterik ez, baina zorion agurrak eta oharak jasoko ditugu ohiko formatuan; aldizkaria@pilpilean.com helbidera bidalita edo Iratxo goxodendan utzita. Eskerrik asko alde aurretik eta ondo-ondo pasatu herriko jaietan!

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

# Pil-pilean

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZeko  
UDALA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

## bittartetik



Karmele Ortueta  
**Imajinatzen duzu?**

Honezkero ikusi eta irakurriko zenuen lelo hori daroian kartela. Aurten Atzegi etara daben lelua hain justu be. Erakundia sortu zaneke 50 urte ospatzen dihardue eta adimen urritasuna daukenen alde diharduan erakunde honen erronka dexentia bota dau: "Imajinatzen duzu egun batean kartel honen beharrik ez dela egongo?" Nik uste amets egitten dabela. Itxaropenari leihua zabalik lagatzen badotsat be, oso urruti somatzen dotelako egun hori, mundu perfektu honetan normalak izateko asko falta daben normal asko dagualako nere ustetan. Lau urtian behin, gure politikuak be komeni jakenian existitzen dirala gutxienez ohartzen dira, baina ondorengo 1.460 egunetan... Zorionez Atzegi moduko erakundiak lanian dihardu e egunegun, eta eskerrak! Eskerrak neri dagokidan partetik nere etxeke itxaropen leihua zabal-zabalik iraurarazi dozuen danei. Zuek etxerako!

## Urko Irastorza, Udalbiltza auzian auzipetua

Urko Irastorza 37 urteko lazkaotarra da. Sorreratik Udalbiltzako kide da eta horregatik epaituko dute beste 21 lagunekin batera uztailaren 15ean hasiko den epaiketan. Sorluzen Babes Taldea sortu da auziaren bidegabekeria salatu eta auzipetuei babesa emateko.

### Zein ibilbide izan dau Udalbiltzak?

1.999. urtetik martxan dagoen Euskal Herriko lehen instituzio nazionala da Udalbiltza. Euskaldunan sortu zen, ia 2.000 hautesiren partaidetzarekin. Euskal Herri osoko ikuspegiarekin lan egiteko sortu genuen, zazpi probintzietako herrien arteko elkarlana bultzatzeko asmoz.

### Eta zegaittik auziperatuko zaittue?

Ez dago gu auzipetzeko arrazoi juridiko bakar bat ere, ez delituaren frogarik, ezta deliturik ere. Herrien arteko lankidetzaz deuseztatu nahi izateaz gain, herri guztiak beraien instituzio propioak sortzeko duten eskubidea zapuztu nahi dute eta bide batez mezu bat bidali nahi diote euskal gizarteari, estatuak jarritako mugetatik at joateak ze arrisku dituen adieraziz. Udalbiltzaren aurkako auziak oinarri politikoak ditu eta ez besterik.

### Zenbat lagun zarete auzipetuta?

Udalbiltzaren aurkako auzian Javier Gomez Bermudez izango da epaile burua, Egunkaria auziko berbera. Epaiaketa, uztailaren 15ean hasiko da eta 18ra arte

((ENTZUTEKUAK))

iraungo du. Ondoren epaileak oporrak hartuko ditu eta epaiketak irailan jarraituko du, auskalo noiz arte! Guztira 22 lagunek dugu 10 eta 23 urte bitarteko zigor arriskua gure buruen gainean.

### Zein emaitza espero dozue?

Epaileak dituen frogei kasu eginez gero, epaiak zentzu bakarra du posible, absoluzioa. Baina Audientzia Nazionalarekin ez dago jakiterik! Egunkaria auzian ireki duten atearen zirrikitua berehalakoan itxi dezakete, ez dakigu... Ilusio gehiegi egitea ez da komeni.

### Aurreikusitako protesta ekimenik?

Euskal Herriaren aurkako ekinbide judizial guzti hauek, euskal gizarteak soilik gelditi ditzaizke. Sorluzen uztailaren 15ean 19:30ean elkarretaratzea egingo da Plaza Barrixan. Uztailaren 17an arratsaldeko 17:30ean manifestazio nazionala izango da Bilbon eta hemendik irakurle guztiak animatu nahi ditugurekin batera bertan egotera, ea denon artean bidegabekeri hau gelditzen dugun. Eskerrik asko alde aurretik!



"Epaiak zentzu bakarra du posible, absoluzioa."

**Harategia**  
Enkarguz eskatutako janaria ere prestatzen dugu  
**HARATEGIA**  
Kalebarren 3. Sorluze Tel. 943 75 12 49

**Desing**  
Diseinua eta Sormena  
Polígono Amillaga, nº 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

## Allegro Elkarteko bazkideen bazkaria asteburuan

**A**llegro Elkartek 50. urtebetzea ospatzen jarraituko du asteburu honetan. Eguerdiko 12:00etan bazkideek kalejira egingo dute herrian zehar buruhandiek lagunduta. 13:30ean oraingo bazkideen talde argazkia aterako dute Plaza Barrixan eta 14:00etan bazkide denek, herriko hainbat elkarteko eta udaleko ordezkariekin batera, bazkaria egingo dute Allegro Elkartean bertan.



20 bat lagun izan ziren bazkaltzen.

### Juntako kideak oso pozik

“Hunkigarriak”. Horrela definitu dituzte juntako kideek pasaden astebururako prestatuta ziztuzten ekitaldiak. Eguerdipartean, Allegro Elkarteko partaideen argazki zaharrez osatutako erakusketa jarri zuten martxan eta asko eta asko izan ziren ikus-terera hurreratu ziren herritarrek, eta argazkien kopiak ere eskatu zituztenak. Jarraian elkarteko beteranoak, omenaldiaren ostean, “emozioz beteta” joan ziren bazkaltzera. Bapo jan eta edan ostean, arratsaldera arte luzatu zuten berriketaldia Allegro Elkartean. Juntakoek eskerrak eman nahi dizkiete laguntzaile lanetan jardun duten denei, baita ekitaldietara batu diren herritar guztiei ere.

Astelehenetik aurrera argazki gehiago:



### Ekainaren 29ko grebari jarraipen handiena industrian

ELA, LAB, ESK, STEE/EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuen arabera, Soraluze greba orokorra zela eta, industria mailan enpresa eta fabrikak %75-80ak itxi egin zuten, GOL, Soraluze Cooperativa eta Talleres Urrestarazuk, esate baterako. Udaletxea ere egun guztian itxita egon zen. Mesedeetako Amaren egoitzak gutxienezko zerbitzuak izan zituen eta merkataritzan, %70 goizetik itxita egon zen eta bat ez beste guztiak arratsaldean ere itxita. Kiroldedia berriz, zabalik egon zen goizetik iluntzera bitartean.



### Zorigaitza Karakate mendian

Ekainaren 29an J.H. 53 urteko soraluzetarra hil zen Karakaten, mendi buelta egiten ari zela bihotzekoak emanda. Erreanizatzen saiatu ziren arren, soraluzetarrak heriotza naturala izan zuten, bihotzekoak jota hil zen. Handik gorpua helikopteroan garraiatu zuten, Herrizaingo Sailak adierazi duenez.

### Udaleku irekiak martxan, ibiltariak hastear

Uztailaren 19an hasiko dira Kukumixo Aisialdi Taldeak antolatzen dituen Udaleku ibiltariak. Hiru eguez alde batetik bestera ibiliko dira; herriko txokoak ezagutzeaz gain, Elgoibar ingurua ere ezagutuko dute. Udaleku irekietan 67 umek jardun dute eta ibiltarietan 20 gazte inguruk.



Iturria: Oihane Alberdi

### Zuzenketa

**224. alean hondartzara joateko autobus zerbitzuen albistean akatsa zegoen.**

#### Ekainak 21-uztailak 25

**7:30-8:30-12:30-13:30-14:30 eta 17:30** orduetan Eibarrera doan autobus berak Debara jarraituko du bidaia. Bueltarako Debatik **20:00**etan irtengo da.

#### Uztailak 26-Irailak 5

**12:30 eta 16:30**, herritik Eibarrera eta autobus berean Debara. Itzultzeko **17:25** eta **20:25**ean egongo da autobusa.

**TXOKO KAFETEGIA** 

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea, Soraluze. Tel. 943 75 17 89

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Errekalde 21  
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61

## Udalbiltzak herritarren eta Udalaren babesa jaso du

### Esperientzia eskolan matrikulazioa zabalik

Debabarrenako Esperientzia Eskolako matrikulazioa zabalik dago eta izena eman nahi dutenek urriaren 8a bitartean izango dute aukera, udaletxean bertan. Izena emateko, eskuorri bat bete behar da, norberaren datu pertsonalekin. Esperientzia Eskolan astean hiru egunez eskaintzen dira klaseak, martitzen, eguazten eta eguenetan, goizeko 9:30etik 12:30ak arte. Ikasturtean zehar hainbat eduki landuko dituzte: gizarte-gaitasunen garapena, komunikazio gaitasunen trebezia, osasun fisiko eta mentalaren hobetzea, erlaxazio teknikak, informatika, psikologia, filosofia... besteak beste. Informazio gehiago 943 224146 telefonoan.

### Bizikalek 500 euro zozketatu dute

Bizikale Merkatarik Elkartek zozketa ipini berri du martxan. Elkarteko dendetan erosketak egiten dituztenen artean 50.000 errifa banatuko dituzte. Uztailaren 15ean zozketa egingo da eta zenbaki irabazleak 500 euro jasoko ditu elkarteko dendetan gastatzeko.



Irudian itzako irabazlea saria jasotzen

Udalbiltzari babesteko herrian osatu den Babes Taldeak uztailaren 3an bere lehen agerraldia egin zuen. 100 lagunetik gora batu ziren Zinean talde argazkia egiteko; tartean, Sorluzeko Ezker Abertzalea, EAJ, EA eta LAB (Udalbiltzaren sorrerako kideak 1999an) izan ziren eta hainbat norbanako.

### Udalbiltzaren aldeko mozioa onartu egin zen

Eguazteneko Udalbatzarrean, EAJ, EA, LAB, Ezker Abertzalea eta hainbat herritarrek Udalbiltza auzian auzipetutako 22 lagunei babesa emateko asmoz, mozio bat aurkeztu zuten, "Bai Udalbiltzari, bai Euskal Herriari" plataformaren

izenean. Udal Gobernu Taldearen eta EAJren aldeko zortzi boturekin eta PSE-EEren aurkako birekin mozioa onartu egin zen. Bestalde, Jose Luis Arizaga alkateak deialdia egin zuen uztailaren 17an Bilbon egingo duten manifestaziora joan eta Udalbiltzari babesa emateko.

### Uztailaren 15ean elkarretaratzea herrian

Aipatutako Udalbiltzaren aldeko babes taldeak herritar denei deialdia egin nahi die uztailaren 15ean, eguena, arratsaldeko 19:30ean Plaza Barrixan egingo den elkarretaratzean parte hartzeko. Elkarretaratzearen leloa, "Bai Udalbiltzari, bai Euskal Herriari" izango da.



Sorluzeko Babes Taldea

**GILA TABERNA**  
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK  
**GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK**  
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



**MARE**  
ILEPAINDEGIA

**ESTETIKA  
SOLARIUM**

Errabal kalea 1, beheak  
Tel.: 943 75 14 69  
20590 SORALUZE



**Etxabe Harategia**

Euskal txahalkia Bildotsa

Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak  
T. 943 75 2375



**GAZTELUPE**  
taberna

tel: 943 75 20 81



# Kostia Dyachenko

## “Soraluzeko dana geratuko jata goguan”

Kostia Dyachenko zortzi urterekin heldu zen lehenengoz Soraluzera, bi hilabetez Ukraina atzean laga eta oporrak leku eta jende berri artean topera aprobetxatzeko. Aurten sentimendu gazi-gozoz busti zaio uda, bere azkenengoa izango delako Soraluzen.

### Noiz etorri zinan lehenengoz Soraluzera?

Zortzi urte besterik ez nittuan Soraluzera heldu nintzanean. Nerekin batera bedertziz ume etorri ziran eta ni izan nintzan danen artian txikixena. Bestiak nagusitzen jua dira eta ni bakarrik geratu naiz oin!

### Oso mutil independentia ei zara!

Ni beste umiak ez moduan, plaentxiarrekin ibili izan naiz beti. Danak euskaldunak diranez txikittatik egin dot euskeraz. Ukraniera eta errusierakin batera, hiru hizkuntza dakidaz.

### Ze inpresino emon zotsun herrixak?

Hasieran dana zan desberdina, bai jendia, lekua eta noski, hizkuntzia be bai. Baina oso ondo hartu ninduen eta segittuan egin nittuan lagunak.

### Desberdina da zure jaioterrixa?

Ni Ukraniako Irpen hirikua naiz, 165.000 biztanleko hiri batekua. Kievetik oso gertu dago. Haura lau-laua da, ez dago mendikaterik. Hemengo jendia lasaixagua da hanguan aldian. Etxiak be oso desberdinak dira, 10 solairutakuak gehixenak, haundixaguak. Hemenguak txikitxuaguak dira. Hirixetatik kanpora ikusi lekez txalet batzuk be.

### Zelan dago inguru hori?

Hobeto dago. Oin dala 24 urte izan zan eta honezkeroko ez dago horrenbeste kutsadura. Gure herrixa Txernobildik 120 km-ra dago eta adibidez, txorroteko urik ezin dogu edan; ondio ez da edangarrixa eta erosi egitten dogu. Nere ustez garbitzeko ezin da ezer egin.

### Ume asko dago hona etortzeko goguakin?

Ume pilo batek nahi dau udia kanpua pasatzia. Baina horretxetatik danetatik gutxi batzuk baino ez gara etortzen. Aurten 300 ume inguruk euki dogu suerte hori eta gehixenak Gipuzkuara etorri gara.

*“Ume pilo batek nahi dau udia kanpua pasatzia”*



Kostia Dyachenko, 1993 urtean jaio zen Ukrainiako Irpen hirian. Zortzi urte bete zituenean Soraluzera etorri zen uda pasatzera “Txernobil Elkartea”-ren bitartez. Elisa Labayen, Manolo Etxabe eta hauen alaben etxea bere ere egin du hamar urte hauetan eta etorkizunean itzuliko dela argi du.

Txernobil Elkarteari buruzko informazioa: [www.chernobil.org](http://www.chernobil.org) helbidean.





Behoko lerroan eskuman  
Kostia 8 urterekin.

tzian be bai eta hemengo hiriburu guztiak ezagutu dittut.

### Soraluzeko zure familixiak ezagutzen dau Ukraina?

Bai! Aurten egon dira nere familixiak eta gustora ibili dira. Sei egun emon dittue bertan.

### Zure azken urtia da hau. Soraluzeko ze gauza geratuko jatzuz goguan?

Dana! Herri honetako dana izan da gustokua neretako.

### Ze baldintza bete bihar ditzuzue etorri ahal izateko?

Batez be ekonomikuak. Zenbat eta diru gutxiago euki orduan eta aukera gehixago dittu familixiak beren umiak udak kanpuan pasatu deizezen.

### Zure arrebiak be udak kanpuan pasatzen dittu, ezta?

Bai, Olga dauka izena eta Valentzian dago oin, bera be familixa baten etxian. Hiru anai-arreba gara; Olga, ni baino gaztiagua da eta beste arreba zaharrago bat daukat.

*“Zer ikasi ez dakit, baina bai Euskal Herrixan egingo dotela”*

### Hona bueltatzeko gogorik badaukazu?

Bai, gogo haundixa. Hona etorri nahi dot ikastera. Momentu honetan autuen mekaniko izateko ikasketak egitten nabil eta horren ostian beste zeoze ikasi nahi dot; zer ondio ez dakit, baina bai Euskal Herrixan egingo dotela. Hegaldixak hartzia ez da garestixa, dana konplikatzen dabena egin biharreko papeleo dana da.

### Plaentxian zarenian ze egittia gustatzen jatzu?

Plaiara juatia, bizikletan ibiltzia... Gauza asko dare egitteko. Nere herrixan ez daukagu piszinarik eta hemen bai. Mendira juatia be gustatzen jata; behin Pirineora jua eta 2.000 metroko alturan ibili ginan! Aurrekuan Urkiazelako bordan egon ginan kanpin dendiakin lotan.

*“Hamar urte honetan asko bidaiatu dot”*

### Hamar urte honetan ze ikusi dozu?

Asko bidaiatu dot. Iparraldian izan naiz, Saran eta Larrunen. Errioxan eta Valen-



Kostia bere arreba Olgarekin.



Soraluzeko familia Ukrainian.



# ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Udako oporrak heldu ahala Euskal Herrira atzerriko umeak etortzen dira, jaioterrian izan ez ditzaketen baldintza onak aprobetxatu eta etxera indarberrituta bueltatzeko.

## Kanpoko ume bat jasoko zenduke etxian?

**ENEIDA DE LA CRUZ**  
Erreponedoria



**B**a oin txikixakin eta ez, bez daukatelako astirik. Baina libriago banengo hartuko neuke, bai. Berak ondo pasatzera etortzen dira hona eta medikuagana juanda, erropia erositta eta ondo janda bueltatu.

**MIRIAM HERNANDEZ**  
Etxekoandria



**B**ai noski. Nere umiak beste nunbaittera jua biharko balira be eskertuko neuke baten batek etxian hartzia. Gurera baten bat baletor moldatuko genduke gure udako oporrak.

**IGOR GOIBURU**  
Jatetxeko langilia



**E**z dakit zererantzun, baina ez nago guztiz itxitta. Lagun batek Saharako ume bat ekartzen dau eta eurendako garrantzitsua da handik urtetzia. Gainera, gero etxera bueltatu bihar dira berriro.

**PATXI LUGARIZARISTI**  
Pentsioduna



**E**z, nik ez neuke hartuko. Bakarrik bizi naiz eta ez daukat astirik ezertarako. Hori bai, eurendako oso ona da. Adibidez, Ukrainiako umiak gaixuak sendatzera etortzen dira.

**Soraluzeko Kooperatiba Elkarte**

**100 URTE**  
1910 - 2010

943 75 13 45

**Javier Alberdi**

Baimendutako harategia  
**Euskal Okela**  
Carnicería autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze

**TXURITXU**

Zuekin gozatzen

943 75 24 43

Santa Tria kalea 22 bilboa

**GILTZAK, S.L.**  
SARRILAGINTZA

• Era guztietako sarraila eta segurtasun kutxen **salmenta** eta **mantenua**  
• Segurtasun eta iheserako **instalakuntzak**  
• Sarrailen **egokipenak**  
• Era guztietako giltzen **kopiak**  
• Trabatutako atea **askatzen** ditugu

**8.00etatik 24.00ak**  
larrialdiko zerbitzuak  
943 70 13 91

Arragueta 3  
20600 EIBAR  
GIPUZKOA  
T. 943 70 13 91  
F. 943 20 06 99  
giltzak@giltzak.com  
www.giltzak.com

### Roman Garmendiak liburua argitaratu du

Roman Garmendiak (Soraluze 1957), bigarren liburua atera du argitara. "Nire filosofiaren muina" du izenburutzat eta Errota editorialak argitaratu dio. Liburuak tradizio kristauan du erroa eta Romanek liburu honetan tradizio horri eguneratzea egin dio. Katolikoa sentitzen da bera eta liburuarekin horren demostrazioa egin nahi izan du. Idatzitako libururik osatuena dela dio egileak eta euskaraz idatzita dago, maite duen hizkuntza delako. Liburua Elkar dendan dago salgai.

### Meza eta luntxa Iruren

Abuztuaren 8an Irure Auzoko jaia ospatuko dute auzotarrek. Eguerdiko 12:30ean meza izango da, auzoa eta auzokideak bedeinkatzeko eta jarraian luntxa, bertaratzen diren guztientzat. Ospakizuna Larreategi trikitilariak girotuko dute.

### E.H. Sukarrak girotuko du zapatu gaua

Pasa den astean itxi zen 2010. urteko Santiago Santa Ana jaietako egitaraua. Uztailaren 24ko gaua E.H. Sukarra taldeak girotuko du. EH Sukarra Eibarren jaio zen 1989 urteko urrian. 1990ko uztailaren eskaini zuten beraien estreinako kontzertua Soraluzeko gaztetxean. Hogei urte beranduago talde eibartarra zuzenean berriz ikusteko aukera izango da herriko jaietan, zapatu gauean. Jai Batzordeak festetako aurrekontua ere atera du argitara. Aurten, 68.500 euro inbertituko dira herriko jaietan, iaz baino 14.417 euro gutxiago.

## IV. Udako Argazki Lehiaketa martxan

Udako oporretan munduko leku zoragarri hartara joateko asmotan zabiltzala? Oporretan Euskal Herriko paisaiak ikusteko aukera izango duzula? Herriko txoko ezberdinak bisitatzeko asmotan zabiltzala? Ez galdu aukera: txoko horiek denak erretratatu eta hartu parte Pil-pilean Euskara Elkarteak aurten laugarrengoz antolatuko duen Udako Argazki Lehiaketan. Gaurtik aurrera eta irailaren 30a arte duzu argazkiak erredakziora bidaltzeko aukera. Horretarako bi modu daude: aldizkaria@pilpilean.com helbidera idatzi edo ohiko postaz bidali (27. posta kutxatila, 20590 Soraluze). Ar-


gazkiarekin batera, honako datuak ere adierazi beharko dira:

- Egilearen izen-abizenak.
- Harremanetarako telefonoa.
- Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
- Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.

Kontrargi Argazki kolektiboko kideak izango dira saridunak aukeratzeaz arduratuko diren epai mahai kideak. Aurtengo edizioak bi sari izango ditu:

- **Lehenengo saria:** asteburuko egonaldia nekazal etxe batean.
- **Bigarren saria:** bi lagunentzat afaria Txurruka jatetxean.



Lehiaketako oinarri guztiak  .com

### San Juan ospakizuna Nagusien Egoitzan

Ondo baino hobeto ospatu zuten San Juan Eguna Mesedeetako Amaren Egoitzako aittitta-amamak. Txapak berotu, taloak egin eta hauek erre ostean, txistor zatiak sartu eta merienda ederra egin zuten bertaratu zirenek. Unai Larreategi trikitilariak ere han jardun zuen giroa berotzen.



Iturria: Mesedeetako Amaren Egoitza

# Harri jasotze txapelketa San Andresen domekan

**E**tzi, domekan, IV. San Andreseko Harria txapelketa jokatuko da arratsaldeko 18:00etan Munua frontoian. Harri jasotzaileek 75 kiloko harria jasotzeko

erronka izango dute; 5 minututan jasoaldi gehien egiten duenak irabaziko du proba. Iaz, Odei Izetak irabazi zuen frogara. Errekorra 5 minututan 41 altxaldi egitean dago.

## Harri jasotzaileak:

Jokin Eizmendi (Zarautz)  
Belloso (Endoia)  
Goikoetxe (Elgoibar)  
Telleria (Urnieta)

## Sariak:

1. 300 € txapela eta garaikurra
2. 300 € eta garaikurra
3. 300 € eta garaikurra
4. 300 € eta garaikurra

2008ko irudia



# Soraluze Txirrindularitza Saria uztailaren 18an izango da

**B**ihar zortzi jokatuko da Soraluzeko Txirrindularitza Sariaren XIII. Edizioa, otsailaren 18an bertan behera geratu zena. 23 urtez beherako txirrindulariek goizeko 9:45etan ekingo diote lasterketari Estaziño kaleetik eta San Andres auzoan bukatuko da proba, 12:30ak inguruan. Iazko irabazlea Mikel Landa izan zen, Naturgas taldekoa. Antolatzaileek herritarrei egunean bertan jarriko diren trafiko sei-

naleak errespetatzeko deia egin nahi diete.

## Mikel Hernandez lasterketetik kanpo

Ez du parte hartzerik izango Mikel Hernandez lasterketetik kanpo. Erredakzioari adierazi dienez, "azkenaldian nekatuta nabil eta ezin dut esfortzu handirik egin. Medikuek frogak eta frogak egin dizkidate, lesioaren zergatia zein den argitzeko. Emaizak laster azalduko dizkidatela espero dut".

## 4 soraluzetar Extreme Bardenas frogan

Nafarroako Bardeetan, eremurik desertikoenean, mendi bizikletaz egiten den 110 kilometroko zeharkaldia da Extreme Bardenas. Jon Leaniz - Barrutia, Borja Aristi, Mikel Axpe eta Aritz Alustizak 7 orduz, 32 gradutan bizikleta gainean ibili ostean, oso pozik amaitu zuten frogara. Antolakuntza ere izugarria izan dela diote. Zorionak lauei!



Iturria: Aritz Alustiza

## EMAITZAK

### PELOTA

Mtz de Irujo – Laskurain 12  
Xala – Zubieta 22

Mtz de Irujo – Laskurain 22  
Xala – Zubieta 19

Mtz de Irujo – Merino 22  
Titin III – Laskurain 15

### FUTBOLA

#### Kiroldegiko Futbito Txapelketa

Hala dok ala? – Arane 3-0  
Joga Bonito – Eusko Label 6-3  
Real Koholikos – Gaztetxe 12-2  
Fronton Team – Kastakuak 11-1  
Gare izenbarik – Artifices 3-4  
Konta Team – Guri guri 0-3  
Gare izenbarik – Kastakuak 8-7  
Hala dok ala? – Guri guri 4-4

## AGENDA

### PELOTA

#### Uztailak 12, astelehena, 22:15ean Labrit pilotalekuan

Olaizola I – Ibai Zabala  
Retegi Bi – Laskurain

#### Uztailak 14, eguztana, 22:15ean Labrit pilotalekuan

Leiza – Otxandorena  
Olaizola – Laskurain

### FUTBOLA

#### Uztailak 9, barixakua

Eusko Label – Gare izenbarik 19:00etan  
Real Koholikos – Guri guri 20:00etan

#### Uztailak 10, zapatua

Fronton Team – Joga Bonito 10:30ean  
Hala dok ala? – Artifices 11:30ean

### Futbol zelaia irailean inauguratuko da

Uztailaren 17ak izan behar zuen Ezo-ziko futbol zelaia berriaren inaugurazio eguna baina joan den hilabeteko euriteen eraginez, lur jauzi bat izan zen zelaian eta inaugurazioa atzeratu egin behar izan dute irailera. Oraindik zelaian, belar artifiziala jartzea falta da.

# ZORION AGURRAK


**Aupa Irati!**

Uztailaren 2an 10 urte eh!!!  
Ondo pasatu zure egunean eta  
muxu asko etxekoan partez!


**Jon Caballero Mendizabal**

Uztailaren 15ean 6 urte!  
Zorionak Jon!  
Muxu handi-handi bat,  
sendi guztiaren partez,  
batez ere Nagoreren partez.


**Joseba Mendizabal**

Uztailaren 7an 13 urte!  
Ondo pasatu zure eguna,  
familia guztiaren partez.  
Gora San Fermin!


**Antxon Zubiaurre**

Uztailaren 8an 6 urte!  
Zorionak eta patxo handi bat  
etxekoan partez!


**Enara Iñurrieta eta Irati Iñurrieta**

Abuztuaren 4an eta abuztuaren 27an  
urteak betetzen dituzuelako!  
Muxu handi bat familia danan partez.


**Miren Gabilondo Aristi**


Uztailaren 10ean 3 urte!  
Zorionak eta muxu handi bat,  
aittitta eta amaman partez!


**Nora Gabilondo Aristi**

Uztailaren 14an 5 urte!  
Zorionak eta muxu handi bat,  
aittitta eta amaman partez


**Zorionak Maddi!**

Uztailaren 16an urtebete.  
Zorionak pototi muxu handi  
bat etxekoan partez!


**Julen Calderon**

Uztailaren 20an 2 urte!  
Zorionak politta! Aita, ama  
eta etxeko guztion partez!  
Muxu handi-handi bat!


**Pantxika Unanue eta Jaxinto Gantxegi**

Ekainaren 29an eta uztailaren 9an  
urteak betetzen dituzuelako,  
zorionak bikote familixian partez.


**Mainer Fernandez**

Abuztuaren 3an 8 urte!  
Zorionak neskatxa!  
Amama, aittitta eta bereziki  
Julenen partez!  
Muxu handi-handi bat!


**Zorionak Maribi!**

Neska jator-jatorra eta  
pastelak baino goxoagoa  
zarelako... Muxu erraldoi bat  
eta mila zorion Pil-pileaneko  
lagunen partez!


**Zorionak Iraitz!**

Uztailaren 13an 2 urte!  
Ondo pasatu zure egunean  
eta patxo mordo bat etxekoan  
partez!


**Zorionak pendejillo!**

Mutil jator eta txorua  
urte askuan izan zaittezen!  
Besarkada eta zorionik beroena  
Güait eta widow-n partez!


**Maialen Vila**

uztailaren 17an 14 urte!  
Zorionak eta muxu handi bat  
etxekoan partez.

## jaiotakoak

ANE MARTIN GONZALEZ  
LIDE SUDUPE OSTOLAZA  
GALDER LOSADA ALBERDI



## hildakoak

JUAN IGNACIO HERMOSA ALBERDI  
MARIA ENCARNACIÓN ASTIAZARAN MUGIKA



## LEHTAKETA

## AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- Zein ageri da argazki honetan?



- **Saria:**  
**Pil materiala (kamiseta, pegatina, aditz taulak...)**

Oharra: Lehiaketako zozketa barixaku eguerdian burutuko da.

- **Irabazlea: Jone Blanco**
- **Mari Karmen Larrañaga,**  
Plaentxi Herri Ikastetxeko irakaslea da  
pasa den alean agertzen zan soraluzetarra.



deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: San Andres Elkarteá

## SAN ANDRESERA IGOERIA 76XAN

Oin dala 34 urteko abuztuan 8xan egin zan lehenengoz San Andres auzora igoerako txirrindularitza probia, irudixan agertzen dana. Juan Jose Quintanilla (Uriarte) izan zan garaile urte hartan, 1976-xan. Aurten lasterketa honek 63. urtemugia beteko dau. Sasoi hartan igoeria Soraluze Kirol Elkartiak antolatzen zeban.

### Argazkixan:

Juan Jose Quintanilla (txirrindulari irabazlia)  
Arantxa Unamuno (lore sortia eskaintzen)



**JUANTXO HERMOSA ALBERDI**

*“Lurre oroimenez danbor eta barrilen hotsa inoiz baino indartsuago”*

Soraluzeko haur eta helduen danborrada

*“Ez nau izutzen negu hurbilak uda betezko beroan dakidalako irauten duela orainak ere geroan.”*

Kukumixo Aisialdi Taldea eta  
Pil-pilean Euskara Elkarteá



# Fresatzeko Teknologia



Mahai Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua  
Mahai Finkoarekin



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



SORALUCE, S.Coop.  
Osintxu Auzoa  
E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Tel. +34 943 76 90 76  
Fax. +34 943 76 51 28  
E-mail: soraluce@soraluce.com  
www.soraluce.com



**TXURRUKA**  
**JATETXEA**

www.txurruka.com  
943 75 15 81

**HNOS. BENITO ANAIAK**

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

I. eta E. 943 75 20 47  
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

**SAN ANDRES**  
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,  
eta berogailuak  
sukaldeak eta bainuak

**MENDIZABAL**  
okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91  
Baltegieta 6  
T. 943 75 13 99  
**SORALUZE**

**ARRANO**  
tabernia

etorri eta gozatu  
giro euskalduna eta sanua

**etxera**

Javier Alonso Zelaeta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka  
K.Z. 20.000.752

**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



# SORALUZEKO JAI XAK



## BARIXAKUA 23, Gazte eguna!

- Goiz aldian, **gaztien arteko jolasak** herritik zihar, bertsolari gaztiak animautal!  
Ondoren txosnen zabaltzia
- 14:30ian Gaztien herri bazkarixa eta ostian gaztien arteko jolasen finala  
17:30ian Marbxa Osintxura Marrazekin  
20:00etan Kalejira Galtzagorri txarangiarekin eta Marrazeri harrerria.  
Ostian, txupinazua!
- 20:30ian Amnistiaren aldeko txosnen zabaltzia txarangiak  
23:30ian Asier eta Iñakiren Omenezko Pelota Txapelketako finala  
01:00etan Kontzertuak: **"Itziarren semeak"** eta **"Ze esatek"**  
03:30ian Aulki jokua, sokasaltua eta gomia!!!

## ZAPATUA 24, Hautsak barrotzen!

- 16:30ian **Ur jolasak** danontzat  
22:30ian Kontzertuak: **"Mundet"** + **"Gose"** + **Dj ASI**  
04:00etan **Ur jolasekin** gaba freskatzia  
Eta gero... Kuleru eta kantzontzilo karriera zubitik

## DOMEKIA 25, Eutsiiii!!!!

- 18.00etan Antzerki ikusgarrixa  
22:00etan Kontzertuak: **"Juzai txetxera"** + **"Trikihots"**  
03:30ian Twister eta aulki jokua

## ASTELEHENA 26, Azkenengo azitunia!

- 14:30ian Amnistiaren aldeko bazkarixa Plaza Zaharrian  
19:30ian Triki dantza poteua, Urrats dantza taldiak antolatuta  
20:00etan Mojito goxo-goxua!!  
23:30ian **Karaoke partehartzailia ANIMAUUU!**  
03:30ian Zaku karriera eta aulki jokua

Barixaluko bazkaritako **TXARTELAK** salgai:  
Gila, Gaztelupe eta Amaro talerman

EZ DA JARRERA SEXISTA ETA HOMOFORIK ONARTUKO!

Galtzagorri Jai Batzordea



## IV. Udako argazki lehiaketa

**Leongo Oihala**  
Santagotxo bidean  
amariako argazkia

**Coronilla Caprice**  
Juzuzan 2.276. marroa-argazkia Luzu Berdearen ulara

**Errege eta Aldagribel**  
Zarrioako deserua (Donostia)

**Donostia-Ugaitz**  
Finasterriko 4. oso berearen 1. eta 2. aduna

**Alonso Gernanizko eta Biskakak**  
Cadaques, Gironako kostaldean dagoen  
herri txiki eta zargaria

**Myanmar, kolorez betetako ilunator**  
Kusganari

**Donostia-Ugaitz**  
Karaean, Tarduzac ibaian bale artean

**Bidali argazkiak:**  
aldizkaria@pilpilean.com helbidera  
edo Pil-pilean Euskara Elkartera  
(27. postakutxa), irailaren 30a  
baino lehen.

**Oinarriak**

.com